

Ordizian, 2016ko maiatzaren 26an, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, OHIKO DEIALDIAN, honakoak bertaratu zirelarik

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA:

José Miguel Santamaría Ezeiza jauna

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako EHBildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako EHBildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako EHBildu
Izaro Intsausti Zinkunegi	Ordiziako EHBildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako EHBildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M ^a .Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca	Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak.

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jauna

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1- 2016ko apirilaren 28an egindako osoko bilkurako akta onartzea.
- 3.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.
- 3.- 2016 urteko ekitaldiko aurrekontua.
- 4.- 2016 ekitaldiko Plantilla Organikoa.
- 5.- 2016 urterako Lanpostuen Zerrenda.
- 6.- BERDIN SAREArA atxikitzea.
- 7.- Ekuadorreko lurrikarek kaltetutakoei larrialdi laguntzak ematea.
- 8.- UPABI 12 HI Eren Kontzertazio hitzarmena hasierako izaeraz onartzea.

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

- .- Kreditu gehigarrien 3. espediente onartzea.

GALDE-ESKAERETAN SARTUTAKO GAIAK:

- .- Foru Aldundiari eskatzea Ordiziako N-1eko hainbat puntutan plaka akustikoak ipintzeko.
- .- Ez dela hondakinen bilketa sistemaren ondorioz ipini beharreko edukiontzien gastua ordainduko.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 20,05



Lehendakari jaunak hasiera eman dio bilerari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.-2016ko apirilaren 28ko ohiko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2016ko apirilaren 28an ohiko deialdian egindako bilkuraren aktaren zirriborroa onartzea.

Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia-Orain 2, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak akta onartutzat eman du.



2.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.

Apirilean emandako Alkatetza Dekretuen berri ematea:

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



3.- 2016 urteko ekitaldiko aurrekontua.

Proposamena

Osoko bilkurarako Gaietarako Batzordeak alkate jaunak idatzitako aurrekontu-proiektua aztertu zuen 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, eta osoko bilkurara eramatea adostu zuen, bertan eztabaidatu eta onartzeko.

AKORDIO PROPOSAMENA

Alkate jaunak idatzitako 2016ko aurrekontu-proiektua onartzea. Proiektuak honako kapituluak ditu laburbilduta:

SARRERAK

KAPITULUA	IZENA	EURO
1	Zuzeneko zergak	2.441.000
2	Zeharkako zergak	135.000
3	Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.816.221
4	Transferentzia arruntak	8.605.490
5	Ondare sarrerak	50.077
6	Inbertsio errealak besterentzea	225.000
7	Kapital transferentziak	0
8	Finantza aktiboen aldakuntzak	45.000
9	Finantza pasiboen aldakuntzak	445.610
GUZTIRA		14.763.398

GASTUAK

KAPITULUA	IZENA	EURO
1	Langileen ordainsariak	4.890.341
2	Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea.	6.203.927
3	Interesak	104.270
4	Transferentzia arruntak	2.447.680
6	Inbertsio errealak	426.690
7	Kapital transferentziak	30.580
8	Finantza aktiboen aldakuntzak	45.000
9	Finantza pasiboen aldakuntzak	614.910
GUZTIRA		14.763.398

Honako aurrekontu hauek bat egitearen ondorio direnak:

UDALAREN BERAREN AURREKONTUA

SARRERAK		GASTUAK	
Kap. 1.-	2.441.000	Kap. 1.-	3.853.715
Kap. 2.-	135.000	Kap. 2.-	2.777.148
Kap. 3.-	1.034.360	Kap. 3.-	49.715
Kap. 4.-	7.150.425	Kap. 4.-	3.646.297
Kap. 5.-	23.360		
Kap. 6.-	0	Kap. 6.-	325.780
Kap. 7.-	0	Kap. 7.-	131.490
Kap. 8.-	45.000	Kap. 8.-	45.000
Kap. 9.-	445.610	Kap. 9.-	445.610
GUZTIRA	11.274.755	GUZTIRA	11.274.755

"SAN JOSE EGOITZA" ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA

SARRERAK		GASTUAK	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	744.141
Kap. 2.-		Kap. 2.-	1.971.419
Kap. 3.-	940.248	Kap. 3.-	
Kap. 4.-	1.775.312	Kap. 4.-	
Kap. 5.-			
Kap. 6.-		Kap. 6.-	
Kap. 7.-		Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-		Kap. 9.-	
GUZTIRA	2.715.560	GUZTIRA	2.715.560

"HERRI ANTZOKIA" ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA

SARRERAK		GASTUAK	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	100.605
Kap. 2.-		Kap. 2.-	94.425
Kap. 3.-	56.400	Kap. 3.-	50
Kap. 4.-	127.680	Kap. 4.-	1.000
Kap. 5.-	12.000		
Kap. 6.-		Kap. 6.-	15.000
Kap. 7.-	15.000	Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-		Kap. 9.-	
GUZTIRA	211.080	GUZTIRA	211.080

MAJORI KIROLDEGIA SM-ren AURREIKUSPEN BALANTZEA

SARRERAK		GASTUAK	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	191.880
Kap. 2.-		Kap. 2.-	1.330.935
Kap. 3.-	785.213	Kap. 3.-	3.500
Kap. 4.-	830.196	Kap. 4.-	78.506
Kap. 5.-	8.712		
Kap. 6.-		Kap. 6.-	85.910
Kap. 7.-	85.910	Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-		Kap. 9.-	19.300
GUZTIRA	1.710.031	GUZTIRA	1.710.031

ORDIZIA LANTZEN SA-ren AURREIKUSPEN BALANTZEA

SARRERAK		GASTUAK	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	
Kap. 2.-		Kap. 2.-	30.000
Kap. 3.-		Kap. 3.-	51.005
Kap. 4.-		Kap. 4.-	
Kap. 5.-	6.005		
Kap. 6.-	225.000	Kap. 6.-	
Kap. 7.-		Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-		Kap. 9.-	150.000
GUZTIRA	231.005	GUZTIRA	231.005

Ondoren idatzi den Aurrekontua Betearazteko Udal Araua onartzea:

2016ko AURREKONTUA BETEARAZTEKO OINARRIAK

1.- 2016ko urteko ekonomi ekitaldian, Ordiziako Udalak bere Aurrekontuaren hasierako kredituen guztizko zenbatekoaren gehienez ere % 1eko abalak eman ditzake. Erakunde autonomoek ezin izango dute hirugarrenen aurrean abalak eman, ezta inolako bermerik hitzartu ere.

2.- Gastuen Aurrekontuko honako kontusail hauek handitu daitezke bakoitzarentzat ezartzen den finantziazioaren arabera.

<u>GASTUAK</u>		<u>SARRERAK</u>	
Partida	Kontzeptua	Partida	Kontzeptua
227.07.931.00	Foru Aldundiak herri-zergak kudeatzeagatiko kontua	112.01, 112.02, 130.01 eta 130.02	Askotarikoak
227.09.931.00	Premiamenduzko dirubilketarako kontratua	392.01 eta 393.01	Askotarikoak
226.99.133.00	Ibilgailuak kentzea	310.05	Ibilgailuak kentzeagatiko sarrerak
212.01.133.00	Bideetako seinaleak mantentzea	399.01	Matxurak eragiten dituztenen sarrerak.

Alkatetzaren dekretu bidez onartuko da kreditua handitzeko espedientea.

3.- Programa-multzo beraren barruan egin beharreko kreditu-transferentziak Arlo bakoitzeko ardua duen Delegatuak eskatu beharko ditu, eta Alkate jaunaren dekretu bidez onartu beharko dira.

Kontusailak gaintzen badira, eta egoera horretan dagoen ordezkaritzak egin beharreko transferentziak egitea proposatzen ez badu, Ogasun Ordezkaritzak egokien irizten dituen kontusailak hartuko ditu.

Programa-multzo ezberdinen arteko kreditu-transferentziak Osoko Bilkurari dagozkio. Inbertsioetarako kredituak murriztea ekarriko duten kreditu transferentzien espedienteetarako, Osoko Bilkuraren

erabakia beharko da. Gai horretan, Alkate jaunarentzat zehaztutako eskumen berberak izango dituzte Erakunde Autonomoetako buruek.

4.- Kontu-hartzaileak prestatuko du aurreko urteko kredituen ekarpenerako espedientearen zirriborroa, horretarako honako faseetan geratu diren gastuei erreparatuko die: abenduaren 31n Baimenduan (B) edo Xedatutakoan (X) zeudenak. Alkate jaunari dagokio espedientea onartzea.

5.- Alkateak kreditu gehigarrien espedienteak onar ditzake, baina beti ere, metatuz gero, diru-sarrera arrunten aurrekontuaren %5a gainditu gabe.

6.- "Langileentzako maileguak" 833.01.920.00 kontusaileko kredituak eskuratzeko, interesdunek eskaera egin beharko dute, eta proposatutako eta aurrekontuan jasotako gastua justifikatu beharko dute. Ogasun Ordezkaritzak ebatziko du mailegua ematea bidezkoa den ala ez; oniritzia jaso gero, alkate jaunaren dekretuz betearaziko da.

7.- Aurrekontuan aurreikusitakoak baino diru-laguntza finalista handiagoak lortzen badira, kopuru berdineko gastu-kredituak gehitzea izango da dagozkien gastu-partidetan. Alkate jaunak baimenduko du gaitze hori.

8.- Honako hauen inguruko gastuak egiteko:

- Langileak kontratatzea
- Lanak kanpokoekin kontratatzea.
- Mantentze-lan hutsak ez diren obrak edo lanak udal-zerbitzuek beraiek egitea
- Material inbentagarria erostea.

Alkatetzaren dekretu bidezko aldeztutako aurrekontuaren behar izango da, eta aurrez kontu-hartzailearen txostena eskatu beharko da. Alkatetzaren aldeko dekretua jasotzen ez den bitartean, erabat geldituko da gastu-espedientearen tramitazioa.

Baita ere, 500 eurotik gorako gastuak egin ahal izateko "gastu baimena" orria bete beharko da. Modu honetan Kontabilitatearen hobekuntza nabaria lortuko da.

9.- Bi (2) hilabete behin kontu-hartzaileak aurrekontu-partiden egoeraren berri emango die ordezkaritza; horiek behar diren neurriak hartu beharko dituzte onartutako kreditua ez gainditzeko. Erabilgarri dagoen kreditua behar adinakoa ez dela irizten bada, bai aparteko gastuak izan direlako, bai Aurrekontua egiterakoan ezagutzen ez ziren beste premia batzuk daudelako, dagokion Ordezkaritzak kreditu-gehiagari ematea proposatuko du; horretarako, dagokion finantziarioa proposatu beharko du, edo kreditu-soberakina eskatu beharko du, halakorik balego.

10.- Dietak.- Udalaren ordezkariek, Alkateak eta Zinegotziek, eta udal-langileek joan-etorriengatik sortzen zaizkien gastuak kobratzeko eskubidea izango dute, beti ere, joan-etorri horiek udalaren eskumenekoak diren gaiak kudeatzeko egiten direnean; horretarako, Korporazioak baimena emana behar du.

Gastu horien kopurua honako hau izango da:

Autonomia Erkidego barruko joan-etorria norberaren ibilgailuan, 0,29.-€/km. Gosariak: 6.-€. Bazkaria: 16.-€. Afaria: 16.-€.

Ostatu hartzea: gehienez pertsona/eguneko/100.-€ko gastua duen hotela.

Ikastaroetara nahiz azoketara joanez gero, bazkari, afari eta ostatu hartzeko ere ezarritako mugak aplikatuko dira. Erakunde arteko harremanengatik aipatu horiek baino gastu handiagok egin behar direnean soilik estaliko ditu horiek Udalak, aurrez gastuei dagozkien fakturak ekarrita.

11.- Kredituak likidatzerakoan, agiriak egiterakoan edo konpromisoak hartzerakoan Udaleko buru, funtzionario eta kideek ordainketa oker guztiak itzultzeko erantzukizuna izango dute, hartuta dituzten eginkizunen arabera. Edozein motako agintari eta funtzionarioek, iruzurratik, erruagatik edo arduragabekeria larriagatik lege-xedapenak hautsiz erabakiak hartu edo egintzak egiten badituzte, horien ondoriozko kalte eta galerak ordaintzera behartuta daude Korporazioari. Dena dela, gastuak eta ordainketak agintzen dituenak eta kontu-hartzaileak, aipatu gastu eta ordainketa horiek desegokiak direla idatziz ohartarazten ez badu, baimentzen dituzten behar adinako krediturik gabeko gastu guztien erantzule izango dira, baita aitortzen, kitatzen edo ordaintzen duten obligazio guztien erantzule ere.

12.- Salmentak.- Alkatetzaren aginduz, ezertarako balio ez duten gauzen salmenta egingo da, aipatu gauzek 360.- euro baino gutxiago balio dutenean. Nolanahi ere, esan behar da Udalaren beste erabakirik behar ez duten salmentetarako oinarria dela hori.

13.- Alkateak ez du bere eskumenik inoren esku utzi, eta ondorioz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21. artikuluan xedatutakoak ditu bere esku.

14.- Kredituen lotespen juridikoaren mailak honako hauek izango dira:

Programa eta azalpena.

Transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak
Inbertsio errealak
Finantza aktiboen aldakuntzak

Programa eta kapitulua

2. kapitulua (elektrizitate, ur, gas eta erregai horniduren partidak izan ezik, hauek Aurrekontu osorako azpikontzeptu ekonomiko gisa azalduko dira).

Kapitulua

Langile gastuak

Finantza gastuetako 3. kapitulua eta Finantza Pasiboen aldakuntzetako 9. kapituluak uztartuta geratzen dira.

2. kapituluko kontusail askoren gastuak urte guztian zehar sortzen direla kontuan hartuta, eta, kredituen lotespen juridikoaren mailak zorrotz aplikatzearen ondorioz, aipatu kontusailletako kredituak agortu ez daitezen, kontu-hartzailetzaren aurrekontu-partidarekiko kontrola 2016ko azaro arte egingo da.

15.- Ordainketak. Ordainketak, oro har, banku-transferentzia bitartez egingo dira.

Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Iturrioz jauna

Adierazi du urtarrilaren 24an Aurrekontuen zirriborroa aurkeztu zietela alderdi politiko desberdinei. Ordizia Orainek Aurrekontuan sartzeko lau proposamen aurkeztu zituen, eta guztiak onartu ziren osorik. EHBilduk ez zituen proposamenak aurkeztu eta apirilaren osoko bilkuran aztertu zenean, onartzea galarazi zuen osoko zuzenketa bat aurkeztuz eta onartzeko aurrekontu proiektua berriro adostera behartuz.

Iturrioz jaunak kontuan hartu du datorren urtean aurrekontuak batera lantzeko, alderdi politiko guztien artean.

Aldaketek Gastu Arruntaren %0,24ko aldea suposatzen dute eta maiatzeko osoko bilkurara Aurrekontua berriro ekartzea saihestu zitekeela uste du.

Eguren jn.

Gastu Arruntean diferentzia, hain zuzen, %0,24koa dela adierazi du, baina Inbertsioetan %50ekoa dela esan du.

Aurrekontua handitu da 2015ean aurreikusitako gastu batzuk ez direlako burutu.

Aurrekontu sozialagoak direla uste du eta ordiziarren bizitza hobetzeko aurrekontuak direla pentsatzen du.

- Alokairu sozialeko laguntzen partida handitzea, etxebizitza hutsen OHZren %50aren errekarquarekin finantzatuta, herritarren onerako izan behar duena.
- Kaleen asfaltatze eta mantentze lanak.
- Jose Aranako lokala erostea kultur ekintzetarako erabiltzeko.
- Zeremonia zibiletarako lokala gaitzea, aurreko legealdiko aurrekontu parte-hartzaileetatik datorren eskakizuna izanik.
- Garagartza plaza estaltzea, udalerriko arkitektoen artean ideia lehiaketa bat sustatuz, 8.000.-€ko sari batekin.
- Buztuntza Pasealekua, eremurako aurreikusitako 288.000€ko proiektua baliogabetuta utzi baina kopuru horretako 60.000€ San Joan, Buztuntza, Altamira eta Su Eskola oinezkoentzako

lotuko dituen proiektu bat idazteko bideratu eta faseka jarduten jarraitu, aurrekontuaren erabilgarritasunaren arabera.

- Oianguren parkeari garrantzia eman. Eraikinaren 2. solairua birgaitzeko 150.000€ko partida bat eskatzen zuten, kopuru hori behetik negoziatu dute, zehazki 40.000 € baina eraikina hobetzeko eta birgaitzeko inbertsioak egiten jarraitzekotan.

Tamalgarría iruditzen zaio osoko zuzenketa bat aurkeztu behar izatea aurrekontu proiektua berriro adosteko. Behin baino gehiagotan eskatu dute kontuan izateko eta ez da horrelakorik egin. Pozik azaldu da akordioa lortu delako.

Alkate jn.

Jakinarazi du 2016ko Ohiko Aurrekontua eta Gerakina bereizi behar direla. Berari ere tamalgarría iruditu zaio eta alaketak azkeneko hilabeteetan adostu direla uste du, eta zehazki bi bileretan adostu direla, lehenago adostu zitezkeenean.

Eguren jaunarekin bat egiten du Ordiziako herritarren onerako diren aurrekontuak direla esaten duenean.

Horren ondorioa da, ordea, ohiko gerakin edo aurrezkia 11.000.-€koa izatea soilik.

Sukia and.

Poztu egiten da dirudienez onartu egingo diren aurrekontu batzuk edukitzeaz. Tamalez ezin izan dira aurrekontuak lehenago onartu baina demokraziak indar politiko desberdinen partaidetza sustatzeko bideak eta erremintak ditu, eta kasu honetan osoko zuzenketa bat erabili da guztien arteko akordio bat lortzeko. Etorkizunerako irakaspena izan behar du.

Dubreuil jn.

Bere ustez Aurrekontu proiektua onartzeko nahikoa denbora izan da. Lehenengo zirriborroak partida irekiak zituen alderdi politikoen proposamenei lekua uzteko hain zuzen ere. ORDIZIA ORAINek garaiz aurkeztu zituen eta EHBILDUK nahiago izan zuen osoko bilkuran egin.

Aurrekontuak aurrekontu-orekaren eskakizunei erantzuten die eta parte-hartzaileagoak dira oposizioko bi alderdien proposamenak izan direlako kontuan.

Aurrekontu berritzaileak dira (bere jatorrian ere hala ziren), hauteskunde kanpainako proposamenak sartzen dituzten aurrekontuak (Ekimena Proiektua, Droga-mendekotasuna... etab.).

Ez du bat egiten "Gure Esku Dago" proiektu politikoarekin, baina hla ere, Aurrekontua aurrera ateratzeko aldeko botoa emango du.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia-Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.



4.- Kreditu gehigarrien 3. espedientea onartzea.

Alkate jn.

Azaldu du, puntu hau, hau da, alderdi politiko guztien proposamenak aurrekontuan sartu ahal izateko Soberakinetik kreditu gehigarria gaitzeko puntuaren irizpinik ez dela eman Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean eta beraz Osoko bilkurak eguneko Gai-ordenean sartzeari berretsi behar du.

Idazkari andreak

Adierazi du normalean Eguneko Gai Ordenean presazko puntuak sartzeko "Galderak eta Eskerak" puntura pasa aurretik egiten dela.

Alkate jn.

Egokiagoa iruditzen zaio orain egitea aurreko puntuarekin lotura duelako, aurrekontuaren onarpenarekin.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV5, Ordiziako EHBildu 5, Ordizia-Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Ondorioz, Alkateak aurkeztutako gaiaren presazko izaera adierazi du.

Proposamena

Joan zen astelenean, hilak 23, Tokiko Gobernu Batzordea bildu zen 2016ko Aurrekontuaren adostasuna lortzeko.

Kontuan harturik egin beharreko inbertsio guztiak ezin zirela Aurrekontuan sartu, adostu zen Aurrekontutik aparte, Kreditu Gehigarri baten espedientean sartzeari besteak.

AKORDIO PROIEKTUA:

Kreditu Gehigarrien 3. Espedientea onartzea, 647.000 euro suposatzen duena, eta altxortegi gerakinarekin finantziatuta.

Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Sartu diren partidak zein diren azaldu du proposatutako inbertsioak gauzatzeko eta Aurrekontuaren Inbertsio atala osatzeko.

Kreditu gehigarrien espedientea 647.000.-era iristen da.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia-Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.



5.- 2016 ekitaldiko Plantilla Organikoa.

Proposamena

Toki Entitateen Oinarriak Arazten dituen 1.985ko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90. artikulua eta Euskal Funtzio Publikoko 6/89 Legearen 20. artikulua zehazten duenaren arabera, Udaleko osoko bilkurari dagokio urtero Aurrekontuak onartzea, eta funtzionarioen, langile finko eta aldi baterako langileen lanpostu guztiak bateratzen dituen langileen plantilla.

Aipatutako arautegia betetzeko eta dauden aurrekariekin, azterketa eta justifikatzeko agiriekin, Idazkaritzak eta Kontu-hartzaileak Udal honetako 2016 urterako Plantilla Organikoa eratu dute, aipatutako aginduek zehazten dituzten irizpideei erantzunez.

Horrekin batera Majori Kiroldegiak eta OOAA (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia), goian aipatutako artikulua kontuan hartuta, 2016 urteko ekitaldirako dagozkien Plantilla Organikoak egin dituzte eta onartzeko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean aurkeztu.

Aurrekoa kontuan hartuta, honako erabakia hartzea proposatzen da

AKORDIO PROIEKTUA

Lehena.- 2016 urteko ekitaldirako Plantilla Organikoa hasieraz onartzea, Udal honetako langile eta funtzionarioei dagozkien plazak dituen, eta erabaki honen ERANSKIN gisa doana.

Bigarrena.- Majori kiroldedia SL eta OOAAen (San Jose Egoitza eta herri Antzokia) Plantilla organikoak hasieraz onartzea, 2016 urteko ekitaldirako langile finkoentzat gordetako lanpostu guztiak dituen.

Hirugarrena.-Espedientea jendeaurrean jartzea, hamabost lanegunez, dagozkion erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal daitezen, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik zenbatzen hasita.

Laugarrena.- Agiri hauek behin betikoz onartutzat ematea, erreklamaziorik aurkeztu ez bada.

Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Ez dago.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia-Orain 2, Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.



6.- 2016 urterako Lanpostuen Zerrenda.

Proposamena

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.2 artikulua eta Euskal Funtzio Publikoko Legearen 14. artikulua zehazten duenaren arabera, Udaleko osoko bilkurari dagokio lanpostu zerrenda onartzea, aurrekontuetan aurreikusitako guztiak jaso beharko ditu, funtzionarioak, langile finkoak eta aldi baterako langileak bereiziz.

Aipatutako araudia oinarri harturik, Idazkaritza eta Kontu-hartzailtza Sailak lanpostuen zerrenda eratu du, Euskal Funtzio Publikoaren legearen 15 artikuluan zehaztutako irizpideak kontuan hartuz.

Idazkaritzak eta Kontu-hartzailtzak egindako arauzko txostena irakurri da, eta horri erantsi zaio lanpostuen gastuen azterketa eta aurreikusitako Sarrera Arruntekiko portzentajezko aldea.

Horrekin batera, hizkuntz normalizazio plangintzarako 86/1997 Dekretuaren 9 artikulua zehaztutako prozeduraren tramitazioa amaituta, Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legearen 97 artikulua zehaztutakoaren arabera, hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun-data lanpostuen zerrendan finkatuta egon behar dute.

Bestalde, Majori Kiroldetgia SL eta OOAA-k (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia), 2016 urteko ekitaldirako Lanpostuen Zerrendak eratu dituzte, aurrekontuetan behar bezala finkatuta.

Hau guztia kontuan izanik, honakoa proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

Lehena.- 2016 urteko ekitaldirako Lanpostu Zerrenda hasieraz onartzea, Udal honen zerbitzura dauden lanpostu guztiak barnean dituen, aurrekontu-dotazioak dituztela, erabaki honetako ERANSKIN eremuan dagoen bezala.

Bigarrena.- Majori Kiroldetgia SL-ko eta OOAA-etako (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia) lanpostu guztiak, 2016 urteko ekitaldirako Lanpostuen Zerrendak hasieraz onartzea, dagozkion aurrekontu-dotazioak dituztela.

Hirugarrena.- Espedientea jendeaurrean jartzea, hogeitan lanegunez, dagozkion erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal daitezen, dagozkion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik zenbatzen hasita.

Laugarrena.- Lanpostuen Zerrenda behin betikoz onartutzat ematea, erreklamaziorik aurkeztu ez bada.

Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Idazkari and

Jakinarazi du bidali den Udaleko Lanpostu Zerrenden dokumentua apirileko osoko bilkuran aurkeztutako bera dela, Aurrekontua onartu gabe geratu zenez mahai gainean geratu zena.

2016ko maiatzaren 18ko Osoko bilkurarako Gaien Batzordeak erabaki zuen Droga-mendekotasunaren Prebentziorako Teknikari Lanpostua amortizatu egiten zela San Jose Erakunde Autonomoan Psikologo Lanpostua sortzeko baldintzarik gabe. Aldaketa hau egin da.

Erabaki hau behin betiko onartu ondoren eta jendaurrean 15 egunean argitaratu ondoren, zehaztutako plaza amortizatuta geratuko da, eta lanpostua betetzen duen bitarteko funtzionarioarekin eten egingo da zerbitzu-harremana.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako EHBildu 5, Ordizia-Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.



7.- BERDIN SAREAra atxikitzea.

Proposamena

BERDINSAREA, Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea da.

Sarearen helburua da berdintasunaren alde eta emakumeenganako indakeriaren aurka tokiko gobernuetatik kudeatutako programa eta zerbitzuak bultzatu, indartu, koordinatu eta ebaluatzea.

BERDINSAREAren bidez egindako sareko lanaren bitartez, tokiko erantzunaren eraginkortasuna hobetu nahi da arlo honetan, eta halaber, lotura lanak egin nahi dira tokiko erakundeen eta udalez gaindiko beste erakundeen artean.

Berdinsarearen estaldura Euskadiko biztanleen %75,3ra iristen da gaur egun.

Ordiziako Berdintasun Sailak estrategikotzat jotzen du Ordiziako Udala sareko partaide izatea, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarearen ikuspegi eta hainbat baliabide partekatuak izateko.

Sarean sartzeko bete beharreko baldintzak betetzen ditu Ordiziako Udalak. Hori dela eta, sarean sartzeko eskaera egitea proposatu da.

Hori guztia dela, eta 2016ko apirilaren 28an egindako Berdintasun Delegazioko aldeko onarpenarekin, eta 2016ko maiatzaren 18an Osoko bilkurarako gaien batzordearen aldeko onarpenarekin, Osoko bilkurarako ondorengo

AKORDIO PROIEKTUA onartzea proposatzen da:

BERDINSAREAN SARTZEKO PROPOSAMENA ONARTZEA ETA BERDINSAREARI ATXIKIPENERAKO DOKUMENTUAREN AKORDIOAREN sinadura onartzea

Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Azaldu du Berdintasun Sailak egin duela proposamena. BERDINSAREA gizonen eta emakumeen arteko bersintasanaren alde lan egiten duten eta berdintasuna indartzeko programak eta jarduerak sustatzen dituzten erakunde eta udalerrien sarea da.

Dubreuil jn.

Proposamena hain zuzen ere Berdintasun Sailak egin du baina proposamena Berdintasunaren Aholku Batzordean landu da.

Genero berdintasunaren alde lan egiten duten udalerrien arteko harremanetarako gunea da eta jarduketa integralerako irizpideekin lan egitea eta hori sustatzea du xede. Horrekin batera beste udalerrri batzuekin eta udalaz gaindiko erakundeekin harremana izatea du helburu sarea. Gaur egun sarea 60 udalerririk osatzen dute.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia-Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.



8.- Ekuadorreko lurrikarek kaltetutakoei larrialdi laguntzak ematea.

Proposamena

Ordiziako Udaleko Garapenerako Lankidetzaren Programan, Ekintza gizatiarrentzako larrialdietarako laguntzak, arautzen dituen araudia jarraituz, eta 2016 urteko ekitaldiari dagokionez,

Honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

SAVE THE CHILDREN, erakundeari, 2.000.-€ ko diru-laguntza ONARTZEA, "Larrialdia Ekuadorren: 750.000 USD lortzeko deia lurrikararen ondorioak jasan dituzten neska mutikoei eta beraien familiei laguntza ziurtatzeko" proiektua aurrera eramateko.

Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Jasandako lurrikararen eta ondoren izan diren errepliken ondorioz Ekuador zein egoeratan dagoen gogorarazi du.

Laguntzeko asmoarekin 2000€ bideratzea proposatzen da "Save The Children" erakundearen bitartez.

Dubreuil jn.

Gizarte Zerbitzuetakoak hemen bizi diren ekuadortarrek bilerak egiten hasi dira elkarrekin lan egiteko.

Adierazi du hondamendiren bat gertatzen denean jende guztiak duela gogoan eta sentsibilizatu egiten dela jendea, baina denbora igarotzen denean badakigu guztiok zer gertatzen den. Hau berriro ez gertatzeko lanean ari dira.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia-Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.



9.- UPABI 12 HIEren Kontzertazio hitzarmena hasierako izaeraz onartzea.

Proposamena

12-UPABI HIEko arau subsidiarioen aldaketa puntuala (2013ko uztailaren 18an behin betiko onartua) egiteko bideratzen ari den espedientearen berri eman da.

Eremuaren hirigintza-garapenerako, ezinbestekoa da kontzertazio-sistema bidezko hitzarmena bat sinatzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 27/2006 Legeko 160. artikularen eta ondorengo artikuluen arabera.

Kontzertazio-hitzarmena Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAK (CAF) proposatu du, eta jabeek aipatu hirigintza-garapenerako bete behar dituzten betebeharrak jasotzen ditu; besteak beste, birpartzelazio-proiektu bat idaztea eta aurkeztea. Halaber, Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, SAK (CAF) egikaritze-unitatean gauzatzeko dauden urbanizazio-kargen zenbatekoaren, eta obra-proiektuen eta obra-zuzendaritzaren zerbitzu-ordainsarien % 7ari dagokion abala jarri du.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak dio udalak, hasiera batean, hitzarmena onartuko duela, eta hori jendaurrean egongo dela 20 egunez GAO-n.

Aipatu legeak udalaren barruan ez baitu hitzarmen hori onartzeko organorik esleitzen, alkatezari ematen zaio eskumen hori. Nolanahi ere, alkate jaunak hitzarmena udalbatzak onar dezan nahi du, eremuaren garapenak duen garrantzia kontuan hartuta.

2016ko maiatzaren 18ko osoko bilkurarako gaiak aztertzen dituen batzordearen aldeko irizpenarekin, proposatu da honako:

AKORDIORAKO PROIEKTUA

- 1.- 12-UPABI hirigintzako esku-hartze eremuko 12.1 egikaritze-unitateko kontzertazio-hitzarmena hasiera batean onartu, aipatu eremuaren hirigintza-garapenerako.
- 2.- Aipatu hitzarmena 20 egunez jendaurrean jarri, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko zazpigarren xedapenaren arabera.
- 3.- Hasiera batean onartutako akordioa behin betikotzat hartuko da baldin eta iradokizunik edo erreklamaziorik aurkezten ez bazaio.

Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Jakinarazi du martxoaren 15ean hasierako izaeraz onartu zela urbanizazio proiektua eta behin betiko onartzeko dagozkion txosten sektorialen zain gaude.

Azaldu du, puntu honetan ondorengo onartzen dela: sinatzen duten aldean eskubide eta betebeharrak urbanistikoak arautzen dituen UPABI-12 HIEko EUren 12-1en kontzertazio hitzarmena.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako EHBildu 5, Ordizia-Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.



10.- Galde-eskeak.

Ezenarro jauna

Aipatu du duela gutxi, osoko bilkurak aho batez onartu zuela Foru Aldundiari eskatzea Ordiziako N-1eko hainbat puntutan plaka akustikoak ipintzeko. Gaur Batzar Orokorretan plaka horiek ipintzearen aurka bozkatu da, azterketa bat egin behar dela argudiatuz.

Lasarten, Villabonan, Andoainen edo Tolosan dagoeneko plakak ipini dira eraikin eta etxebizitzetan eta errepidetik hurrunago daude Ordiziakoekin alderatuta.

Alkate jn.

Erabat ados dagoela erantzun dio eta gaia aztertzeko Foru Aldundian bilera eskatuko dutela esan du.

.....

Gonzalez jauna (IRABAZI)

Gogora ekarri du Hondakinen Mahaiak adostu zuela ez zuela hondakinen bilketa sistemaren ondorioz ipini beharreko edukiontzien gastua ordainduko. "Galdera eta eskaeren" puntuan gaudenez, alderdi politiko guztiei eta batez ere Sasietan Udalaren ordezkari direnei (abstenitu egin dira akordioa bozkatzean) gaiaren alde borroka dezatela eskatzen diet Sasietak gastua ordain dezan.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak hori egiaztatzen dut.